

BIHOTZ SALATARIA



Atx Teatroa

Atx Teatroa Iñaki Ziarrustak sortu eban 2010an.

Gure ikuskizunei jagokenez, honeek dira Atx Teatroaren zutaberik nagusienak:

- **Distopia**
- **Antiestetikea**
- **Euskal Herriko tradizino eta antropologian ikertzea**

Baina **Atx Teatroa** antzerki konpainia baino gehiago da. Kale- zein areto-ikuskizunak sortzeaz gain, bestelako zerbitzuak be eskaintzen deutseguz beste konpainiei:

- **Atx Aholkularitza:** Aholkularitza Tekniko-artistikoa
- **Atx Eszenografiak:** Eszenografia eta attrezzo tailerra
- **Atx Ikastaroak:** Ikastaro monografiko trinkoak

**Informazio gehiagorako: www.atxteatroa.com*

Sinopsia


Zoroaren argudioak, psikopatearen pefekzionismoa, hiltzaile zuhurra eta zorrotza. Delitu ikaragarriena, zitalena....babesbako agurea hiltzen dau, zatitu eta gorpuzkiak ezkutatu.

Polizia ikertzera dator, ohiuren bat entzutean norbaitek abisua emon daualako. Hiltzaileak, bere zereginaren perfekzionismoaz harro, etxe barrura gonbidatu, dana ordenean dagoala erakutsi eta eurekaz batera jesartzen da lasai lasai solasean.

Garaipena dastatzen daualarik, bere buru barruan, agurearen bihotz-taupak entzuten hasten da, hasikeran astiro astiro eta motel motelean, baina bere buruko burrunba hori gero eta ozenago egiten da, gero eta zoliago entzuten dauz taupadok, jasanezin bihurtu arte. Errealak edo imajinarioak diran taupada misteriotso honeek bere onetik atara eta bere delitua aitortzera bultzatuko dabe.

Egilea

Edgar Allan Poe Bostonen jaio zan, 1809an, eta Baltimoren hil zan, 1849an. Misteriozko eta bildurrezko lanek emon eutsien ospea: «The Raven» («Belea») poemak, eta «Ligeia» eta «The Murders in the Rue Morgue» («Rue Morgueko hilketak») kontakizunek, esaterako, oso fama handia izan eben, gaur egun be bizirik dirauena. Idazle gitxi dago literaturaren historian Poek adinako interpretazio eta hipotesi sortarazo dauanik. Idazle gitxi liluratu dauz Poek bezala belaunaldiz belaunaldi irakurleak eta mitomanoak. Pertsonak berak be, baita obratik aparte be, interes bizia sortarazo dau.



Iturria: Koro Navarro Etxeberria

Dramaturgia

Interpretazioa

Adierazkortasuna beti gure zutabetako bat da eta zentzu honetan aktorearen behar fisikoa kontuan hartzekoa da, horixe delako gure eritxiz, garunetik haratago ailegatzeko bidea, hau da, erraietara zuzen-zuzenean.

Ekintza basatia, gerrillako antzerkia, pertsonaia sobredimentsionatua, gure hesteak (ez gure intelektua) elikatzeko behar dan guztia....

Testua

Dagoaneko testu honen itzulpen bat egon arren (Koro Navarro Etxeberriarena), gure lan propioa egin gura izan dogu. Testua mendebaldeko euskeraz idatzita dago, baina badago aukerea be euskera batuan egiteko. Holan be, uste dogu, euskerearen aberastasunarentzako eta euskalkiekiko aurreiritziak eta bildurrak albo batera lagatako oso aproposa dala dagoan moduan mantentzea.

Lantaldea

Egilea:	Edgar Alan Poe
Itzulpena:	Iñaki Ziarrusta
Aktorea:	Iñaki Ziarrusta
Eszenografia eta Atrezzoak:	Atx Teatroa
Argiztapena:	Atx Teatroa
Soinu atmosfera:	Edu Zallio
Ekoizpena:	Atx Teatroa
Banaketa:	Naia Muñoz (Atx Teatroa)


Espazio eszenikoa

Ohe bakar bat. Erabilera desbardinaren bidez, objektu diferentien itxura hartuko dauana.

Ikuskizun honek berezitasun tekniko bat dauka: Surround sistema erabilten dogu atmosfera eta hainbat soinu efektu sartuteko.

Zinean oso ohikoa baina antzerkian gitxitan erabilitako baliabide honen bitartez, publikoa sugestino mundu batean sartzen saiatuko gara

Surround system



Kontaktua



Naia Muñoz

+ (34) 644 61 86 43

naia@atxteatroa.com

www.atxteatroa.com

 www.facebook.com/atx.teatroa

 <https://twitter.com/atxteatroa>